



BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (II)



bat
Soziolinguistika
aldizkaria

DOSSIERRA

77. zenb. / 2010 (4)

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKAREN GENTLEMANA

Inazio Agirre

Euskara teknikaria

Helbide elektronikoa: Inazio_Agirre@donostia.org

Berezko dotorezia atsegina dario Iñaki Larrañagari. Soziolinguista petoa, euskaldun jatorra eta pertsona hobea. Lazkaon jaioa, 1933an. SIADECO sozioekonomia eta hirigintzaren ikerketarako taldea sortu zuen 1967an, beste lagun batzuekin (soziologoak, ingeniariak, arkitektoak, ekonomistak...). Kooperatiba horretan egin du lan 1996 urtera arte; Iñaki izan da talde horretan euskararen gaia bideratu duen eragile nagusia. 1960ko hamarkadaren azken aldera ezagutu nuen Iñaki, euskal komunitatearen kontzientzia sentitzen, bizi nahia agertzen eta zabaltzen. Beti zaindu du bere askatasuna: inoiz ez du apaiz lanagatik soldatarik jaso eta alderdi jakinik gabeko abertzalea da.

Euskararen normalizazioan makina bat udalerritako egoera soziolinguistikoaren azterketa, programa eta plangintza burutu ditu. Wikipedian (Iñaki Larrañaga – Wikipedia, entziklopedia askea) ikus daiteke haren bibliografia oparoa. Bide berri asko urratu dituen aitzindaria da. Gutxik bezala ezagutzen du Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoa eta, bere esanaren eta eginaren arteko koherentzia erakutsiz, ekarpen handia egin dio Euskal Herri euskaldunaren iraupenari.

1. TEORIATIK PRAKTIKARA ETA PRAKTIKATIK TEORIARA

Iñaki teoriatik praktikara eta praktikatik teoriarako ibilbidea etengabe urratzen aritu da bere bizitza osoan zehar: Teoria soziolinguistiko orokorra, soziolinguistika aplikatu bihurtzen eta Euskal Herriko gazte taldeekin gauzatzen udalerrri ezberdinetan; eta gauzatze zehatzetatik teoriarako gogoeta egiten. Quebec, Suitza, Belgika, Finlandia, Katalunia,... hango prozesuen eskarmentu soziolinguistikoa zabaltzen, puntako soziolinguisten teoria berriak gure artean bideratzen, euskara berreskuratzeko estrategia eraginkorrenak bilatzen, aurkitzen eta burutzen.

Iñakik, joan den mendeko laurogeiko hamarkadaren hasieran, bazituen munduko soziolinguista garrantzitsuenen berri: Lluís V. Aracill, William Mackey, Joshua Fishman, Quebeceko eskola, Kataluniakoa, Louis-Jean Calvet, José M^a Sánchez Carrión, eta abar¹. Nik gertutik eza gutu dut Lluís V. Aracillekin izandako harremana; Iñakik gure artera ekartzen baitzuen. Lizardi Kultur elkartearen afaltzen genuen eta luze eta zabal hitz egiten soziolinguistikaz eta, zehazki, hizkuntz komunitate euskaldunaren egoeraz. Zuzen zuzenean ikasi genituen 'egoera minorizatuaren' berezko joera negatiboen errealitatea, elebitasunaren arriskuak, ordezkatzeko prozesuen faseak eta normalizazioaren norabidea. Urte haiek aktibitate handiko urteak izan ziren.

2. AITZINDARI

Honela dio Iñaki Larrañagak "1975an Euskaltzaindiari euskararen egoerari buruz azterketa orokor bat egiteko ardurua hartzeko eskaera egin genion. Mitxeleña eta gaineratikoek ongi ikusi zuten eta Caja Laboralak finantzatzea lortu zuten. Orduan (1976) hartu zen Euskal Herriari buruzko ikerketa bat egiteko erabakia. Gaiari zegoen seriotasunez heldu asmoz, lehenik Euskararen liburu zuria deituko zena egitea erabaki zen. Alegia, euskararen egoerari buruzko gogoeta sakona (historia, tratamendu juridiko-legala, kontzeptu eta planteamendu teorikoak...) egin beharra zegoela. Bigarren urratsa Euskal Herri osoko azterketa soziolinguistikoa egitea izan zen. Ikerketa hori 1975eko erroldako datuetan oinarrituz egin genuen Hegoaldean eta 1971ko datuekin Iparraldean. Ikerlana 1977an amaitu genuen. Ez genuen egoera orokorraren azterketa egin soilik, azterketa sektorialak ere egin genituen (ikastolak, gau-eskolak, irratigintza, liburugintza...). Laburpen gisara Hizkuntz borroka Euskal Herrian liburua argitaratu genuen. Txostenen laburpena Martin Ugalderen esku jarri genuen, testuak kazetari ukitua ematea nahi baikenuen, ulerterrazagoa eta arinagoa izan zedin"².

"Hirugarren zatia, ordea, argitaragabe geratu zen. SIADECOn azken zati horrek Bases para un futuro plan de actuación en favor de la normalización del uso del euskara zuen izena (1978) eta euskara zegoen egoeratik beste hobe batera eramateko plangintza zuen helburu"³.

*Berezko dotorezia
atsegina dario Iñaki
Larrañagari.
Soziolinguista petoa,
euskaldun jatorra eta
pertsona hobea. Lazkaon
jaioa, 1933an. SIADECO
sozioekonomia eta
hirigintzaren
ikerketarako taldea sortu
zuen 1967an, beste lagun
batzuekin (soziologoak,
ingeniariak, arkitektoak,
ekonomistak...)
Kooperatiba horretan egin
du lan 1996 urtera arte.*

Euskararen normalizazioan makina bat udalerritako egoera soziolinguistikoaren azterketa, programa eta plangintza burutu ditu. Wikipedian (Iñaki Larrañaga – Wikipedia, entziklopedia askea) ikus daiteke haren bibliografia oparoa. Bide berri asko urratu dituen aitzindaria da. Gutxi bezala ezagutzen du Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoa eta, bere esanaren eta eginaren arteko koherentzia erakutsiz, ekarpen handia egin dio Euskal Herri euskaldunaren iraupenari.

3. ESKUZABAL ETA BIDE ERAKUSLE

Iñakik lan handiak egin ditu eskuzabaltasunez, baina beti erabateko finta-sun profesionalaz. Horietako bat, Tolosako Haur Kabi haurtzaindegia izan zen. 1970 urtearen inguruan, Tolosan, guraso langileentzako euskarazko haurtzaindegia eratu genuen. Aita-amak lan egin eta 0 - 3 urte bitarteko haurrak zaintzeko eta hezteko gune egokia behar zen. Denon artean auzo-lanean, eta jende askoren laguntzarekin, abian jarri zen. Eztabaidagaiak ziren haurtzaindegia euskalduna ala elebiduna eratzea; haurtzain guztiak euskaldunak ala batzuk erdaldunak izatea; euskal kulturen heztea eta abar. Han ibili ginen hezkuntzako profesionalekin, pediatra, pedagogo, psikologo eta soziologo ezberdinekin ikasten; gurasoentzat hitzaldiak eta elkarrizketak antolatzen. Iñakiren ikuspegia eta laguntza erabakigarriak izan ziren.

Haur haiek, haurtzaindegian hasi eta hiru urte betetzerakoan Laskorain Ikastolan jarraitu dute; eta, lau hamarkada beranduago, euskaraz bizi diren gazte euskaldun petoak dira, nahiz eta zenbaiten gurasoak erdaldunak izan.

Urte batzuk beranduago, Tolosaldeko azterketa soziolinguistikoa burutu genuen. Guztira 200 bat lagun elkarlanean parte hartuz. Behaketa objektiboak eta elkarrizketa zuzenak egin ziren Tolosarren motibazioa, eza-gupena, erabilera eta jarrerak aztertzeko. Planteamendu teknikoa Iñakirena zen eta berak gidatu zuen azterketa soziolinguistikoaren kudeaketa.

Hierarkiarik gabeko eraketa eta behetik gorako jarduna burutzen genuen. Ekimen horiek ordaintzeko dirurik ez zegoen, dirulaguntzaren bat lortzen baldin bazen ere, dena herri laguntzaz eta afari koxkor batekin konpontzen zen.

4. DISKURTSO SOZIOLOGIA

Alde batera utziko dut Iñaki Larrañagak soziolinguistika aplikatuari egin dion ekarpena. Ez garrantzirik ez duelako, sakontasun gehiago eskatzen duelako baizik; lan eskerga burutu baitu eta nik baino hobeto egin dezaketena ere izan badirelako. Iradokizuna egina da. Azpimarratu nahi dut, ordea, esparru ideologikoan eta ideien lehian, Iñakik teoria orokorren baitan zabaldu dituen diskurtso soziolinguistikoak eta argudio sorta.

Etengabeko kezka eta ardura berezia izan ditu oinarrizko kontzeptu soziolinguistikoaren definizioak zedarritzeko: 'hizkuntz ukipena —hizkuntza borroka', 'hizkuntz ordezkatze prozesua', 'elebitasuna eta diglosia', 'hizkuntza berreskuratzeko— normalizatze prozesua' eta abar. Izan ere, kontzeptu horiek zuzen erabiltzea ezinbestekotzat jotzen ditu hizkuntz komunitate euskalduna berregiteko. Euskararen kasuan, sarritan, huts eragiteko edo modu anbiguoan bederen erabiltzen baitira.

Iñakirentzat euskararen egoera ez da estatikoa eta ezin itzulizkoa, etengabeko eraldaketa prozesuan dagoena baizik, hizkuntz ukipenaren

neurri berean. Eta 'elebitasun sozial egonkorra' lortu ezinezko helburua da, asmo hori hizkuntza baten galeran interesatuta dauden ideologiek mantentzen dute, azkenean, hizkuntza batek bestea baztertzen duelako. Denboran zehar, Iñakik egindako esanetan eta idatzietan nabarmen agertzen da bere diskurtsoaren koherentzia eta mendetasunezko eredu soziolinguistikoa gainditzeko alternatiba.

A) 1970eko diskurtsoa

Tolosako haurtzaindegia euskaraz izan zedin eta ez elebidun Iñakiren informazioa eta aholkuak erabakigarriak izan ziren. Garai hartan zenbait tek esaten zuten euskaraz heztea kaltegarri izan zitekeela eta ez genuela geure seme-alaben etorkizuna arriskuan jartzeko eskubiderik. Ez naiz gogoratzen ñabarduraz; bai ordea, guraso guztiak konbentzitu gintuela euskarazko haurtzaindegia hobestera eta gure seme-alabek hezkuntza osoa euskaraz egin zezaten aldeko jarrera hartzera. Haur euskaldun askeak, solidarioak, irekiak eta profesionalak hezi behar genituen, bizitzea tokatuko zitzaizen gizarterako prestatuak, euskaraz bizitzeko Euskal Herri euskaldun batean. Diskurtso hori aitzindaria zen garai hartako Tolosan.

B) 1979ko diskurtsoa

Euskal Herri mailako lehendabiziko "Euskararen Soziolinguistika Azterketa" SIADECOk egin zuen eta ikerketa horren laburpena da 1979an argitaratutako "Hizkuntz Borroka Euskal Herrian" liburua. Bertan, historia, euskararen memoria eta identitate kolektiboaren arteko ekuazioa, eta geure eskubidearen kontzientzia aipatzen dira; halaber, euskararen normalizazioa zer den eta hizkuntza plangintzaren beharra planteatzen dira; euskararen ordezkapen-prozesua erdararen bidez deskribatzen da eta honako *konklusio garrantzitsuok* zehazten dira:

1. Hizkuntzen arteko ukipena ez da elebitasunezko egoera orekatu batez konpontzen; aitzitik, *hizkuntza batek bestea ordezkatzuz bukatzen du*. Hortaz, biktima bat sortzen da, heriotz-zeinua berekin darama.
2. Gertaera hau *arrazoi estralinguistikoen* emaitza da, funtsean arrazoi *sozio-politikoena*.
3. Espainiak etapaz-etapako eta luzera handiko *kolonialismo linguistiko* ezarri du, gaztelaniaz.
4. Kolonialismo linguistiko hau Austriekin hasi zen, Borboiekin zorroztu, eta *diktadura frankistaz izan du adierazpiderik basatiena*.
5. Bizi ditugun postfrankismo garai hauetan, Estatu espainolak hasitako politika linguistikoak ez du euskaldunon errotiko problema kulturalaren larritasuna kontuan hartzen; eta, beraz, ez da errealista. Badi-

Iñaki teoriatik praktikara eta praktikatik teoriarako ibilbidea etengabe urratzen aritu da bere bizitza osoan zehar: Teoria soziolinguistiko orokorra, soziolinguistika aplikatu bihurtzen eta Euskal Herriko gazte taldeekin gauzatzen udalerrri ezberdinetan; eta gauzatze zehatzetatik teoriarako gogoeta egiten. Quebec, Suitza, Belgika, Finlandia, Katalunia, ... hango prozesuen eskarmentu soziolinguistikoa zabaltzen, puntako soziolinguisten teoria berriak gure artean bideratzen, euskara berreskuratzeko estrategia eraginkorrenak bilatzen, aurkitzen eta burutzen.

“1975an Euskaltzaindiari euskararen egoerari buruz azterketa orokor bat egiteko ardura hartzeko eskaera egin genion. Mitxelena eta gaineratikoek ongi ikusi zuten eta Caja Laboralak finantzatzea lortu zuten. Orduan (1976) hartu zen Euskal Herriari buruzko ikerketa bat egiteko erabakia.

rudi, *emaitza berdinak lortuko dituen taktika berrien bila dabiltzala: gaztelaniaren hegemonia eta euskararen ezinbesteko heriotz pausatua.*

C) 1983ko diskurtsoa

Gogoratzen dut Iñakik adierazten zuela, Udaletako hirigintzak bere teknikariak eta bitartekoak behar baldin baditu hirigintza plangintza aurrea emateko, euskararen plangintza integrala nola proposatu, arautu, babestu, sustatu eta bideratu Udalerri batean, euskara zerbitzurik gabe? Iñaki Larrañaga da Udaletako Euskara Zerbitzuen dinamika berria bul-tzatu duen lehenengo sustatzailea.

“Udalak erabakiak hartu behar dituela esan nahi du. Udal Batzordeetan dauden partidu politikoetako zinegotziek eta erakundeek eztabaida bidez, proiektu bat burutzerira iritsi behar dutela, bakoitzak bere alternatiba eskainiz. Erabilpenaren dinamika garantizatzea posible nola egin daitekeen erabaki behar da eta horrek helburu batzuk markatzea eskatzen du: zer lortu nahi dugun alor bakoitzean, zer administraritzan, zer komertzio munduan, zer banketxeetan... Zer proposatu behar diegu? Zer negozia daiteke beraiekin? Alor bakoitzarentzat proiektu bat egin beharko litzateke”⁴.

Tolosako Udalaren Euskara Batzordeak “Euskara Gizarte Bizitzan”, Tolosan Euskaraz jardunaldiak antolatu zituen 1983an. Jardunaldi horien bidez, euskaraz bizi nahiaren kontzientzia agertu eta ikuspegi berri bat ireki nahi izan zuten Tolosarren artean. Horretarako, Tolosako bizitza sozialaren gizarte sektoreekin harremanetan jarri ginen, sektore bakoitzeko pertsonarik erreferenteenak parte hartu zuten eta ateak ireki zizkieten euskararen erabilerari: irakaskuntzan, administrazioan, gizarte zerbitzuetan eta lan munduko enpresa komiteetan. Liburu batean jaso ziren egun haietan esandakoak

Honela zioen Euskara Batzordeak *“Euskara, beste edozein hizkuntza bezala, identitate nazionalaren ezaugarri izateaz gain, gaur egun euskaldun eta erdaldunen artean eztabaida handiak eta askotan aurkako jarrerak sortarazten dituen gaia da”... “Jardunaldi hauen helburua zera da... partaidetzarik handieneko eztabaida eragitea... euskararen normalkuntzarako norabide oinarritzako ezartzeko... gure hizkuntza komunitateak bizirik irauteko eta hiritar harremanak hobeaizteko balio izango baitu”⁵.*

Eta Iñakik honela hitz egin zuen: *“Hizkuntza bat ez da hiltzen ez bizi-tzen, erabili edo ez erabili egiten da. Erabilpen hau ez da hautapen pertsonala, hautapen soziala baizik, funtsean.”... “Hizkuntza komunitate baten superbibentzia, eskubide kolektiboan datza, eta irtenbide guztiak, testuinguru kolektibo batetan planteatu behar dira, beste guztiak gezurrezko irtenbideak direlarik. Eta irtenbide faltsuak dira, orain panazea balira erakusten dizkiguten elebitasunaren mitoa eta eskubide pertsonalen engainua. Maximotzat jo izan diren horiek, hizkuntza batek normaltasunean bizitzeko behar dituen minimoetara ez dira iristen”... “Posible den irtenbide demokratiko bakarra, helburutzat hizkuntzaren*

normalizazioa planteatzen duena izan daiteke soilik. Euskaraz normalki bizi ahal izatea eta euskara edonon erabili ahal izatea, alemanera Alemanian bezala”⁶.

Espainiako Konstituzioak eragiten duen desberdintasunaz, Iñakik hauxe esan zuen: “...hizkuntza bat besteen gainetik jarriz. Hizkuntza komunitateen arteko erlazioa, Estatua eta Komunitate Autonomoen arteko erlazioa planteatzen dute. Bata goian eta bestea menpean, hierarki erlazioa ezarritz”⁷. Eta Leidor zinema aretoa bete jende bildu zen ikaslez eta irakaslez, eskolan euskara sartzeari buruz, honako hau adierazi zuen: “ ez da eskatze hutsaren ondorioz lortuko... borroka baten ondorioz lortzen den lorpen sozial bat izan beharko du, beste zenbait lorpen sozialen gisara...”⁸.

D) 1999ko diskurtsoa

Hizkuntza politika ofizialaren helburu nagusien tranpa eta diskurtso maltzurra, gutxi bezala nabarmendu ditu Iñakik bere gogoetak erabiliz. Haur Kabi haurtzaindegiko hitzaldietatik, 29 urte beranduago, 1999an, Politika ofizialaren diskurtsoa errotik salatzen du. “Euskararen egoerari buruzko ikerketak: euforia giroa ala konfusio-zeremonia?” izenburuko artikuluan, Zenbat Gara aldizkariaren 3. zenbakian honela dio:

• Elebitasun sozialaz

Eusko Jaurlaritzan gizarte geroz eta elebidunagoa lortzea helburu nagusitzat jotzen da. Eta horren aurrean gogoeta hau egiten du: *Elebitasun soziala modu iraunkorren bideratu ezina da...Izan ere, gizarte berean bi hizkuntza funtzio berberak betetzeko erabiltzea proposatzen denean...indartsuena den hizkuntza nagusitzen da... Eta noski, soberan dagoen hizkuntza ahulena denez, hizkuntza indartsuena nagusitzea onartzen da (modu subliminal batean bada ere).*

*Beste kontu bat da gizarte bateko pertsonak hizkuntza bat baino gehiago eza-gutzea, eta beraz, elebidun edo eleaniztun izatea. Baina ez ditzagun gauzak nahasi. Elebitasunaz ari garenean subjektua pertsona da, eta bestean, berriz, gizartea. Bereizketa hori elementala da hizkuntza politika egoki bat diseinatu nahi bada.*⁹

• Integrazioaz

Integrazioa: kultura eta hizkuntza komunitate bakoitzaren garapena ziurtatzetik dator... Euskal Herrian, gutxienez, hiru kultura eta hizkuntz komunitate ditugu. euskalduna, espainola eta frantsesa... Integrazio hitza erabiltzen denean, kurioa bada ere, ez da hiruren arteko mestizaiarik edo koktelik aipatzen. Ez, alde batetik euskal kultura eta hizkuntza dira espainiar kultura eta hizkuntzarekin integratu nahi direnak; eta beste aldetik, euskal kultura eta hizkuntza dira frantses kultura eta hizkuntzarekin integratu nahi direnak. Inoiz ere ez da planteatzen espainiar eta frantses kultura eta hizkuntzen arteko integrazioa. Garbi dago hemen, beste gauza askotan bezala, tranpa bat dagoela. Izan ere, euskal kultura eta hizkuntza dira espainiar edo frantses kultura eta hizkuntzekin

Iñakik lan handiak egin ditu eskuzabaltasunez, baina beti erabateko fintasun profesionalaz. Horietako bat, Tolosako Haur Kabi haurtzaindegia izan zen. 1970 urtearen inguruan, Tolosan, guraso langileentzako euskarazko haurtzaindegia eratu genuen. Aita-amak lan egin eta 0 - 3 urte bitarteko haurrak zaintzeko eta hezteko gune egokia behar zen. Denon artean auzolanean, eta jende askoren laguntzarekin, abian jarri zen.

Etengabeko kezka eta ardura berezia izan ditu oinarrizko kontzeptu soziolinguistikoen definizioak zedarritzeo: 'hizkuntz ukipena - hizkuntza borroka', 'hizkuntz ordezkatzeko prozesua', 'elebitasuna eta diglosia', 'hizkuntza berreskuratzeko - normalizatze prozesua' eta abar.

integratu beharrekoak. Inoiz ere ez espainiar eta frantses kultura eta hizkuntza elkarren artean integratzeko konturik, askoz hurbilagokoak izan arren...

Benetako integrazioak... kultura eta hizkuntz komunitate bakoitzaren garaipena ziurtatzetik dator... Zergatik ez da, behingoz, onartzen bakoitzak bere normaltasun propioa duenez, bakoitzak autonomia osoa izatea bere garaipen propioa bideratu ahal izan dezan?¹⁰

• Normalizazioaz

Normalizazioaren kontzeptua bera normalizatze abiatu behar dela dio Iñakik. Hizkuntzaren normalizazioari dagokionean esan behar da, J.M Sánchez Carrión Txepetx-ek garbi azaldu duen bezala, hiru maila kontuan hartzea eskatzen duela. Hiru maila horietan gauzatzen ez bada, ez baita posible normalizazioaz hitz egitea. Hiru maila edo aspektu horiek honako hauek dira:

1. Maila orokorra, hizkuntza bere osotasunean hartzen duena.

Helburua: Euskararentzat osasuntsua izango den egoera bat lortzea. Balia-bideak: Euskaldunen motibazio, ezagutza eta erabilera optimizatzea.

2. Maila soziala, hizkuntz komunitatea kontuan hartzen duena.

Helburua: botere linguistikoa birbanatzea eta horrela, hizkuntz komunitatea berregituratzea (Hizkuntz Komunitatearen erdigunean, inguruan eta periferian zein egon behar duen finkatu eta gauzatzea); eta horretarako eman beharreko urratsak honako hauek dira: aginte politikoak helburu linguistikoetara subordinatua egon behar du, eta ez alderantziz, hizkuntz taldeak barrutik kanpora sendotzen dira eta talde bakoitzak bere funtzioa ulertu eta gauzatu behar du.

3. Maila indibiduala, hiztuna kontuan hartzen duena.

Helburua euskal nortasuna osatzea da, euskararen lurraldearen barnean eta kanpoan. Bideak: kanpotarren implementazio edo euskalduntze prozesua, bertako erdaldunduen positibizazio edo euskarara hurbiltzea eta euskaldunen optimizazio edo garaipen osoa.¹¹

• Marko juridiko-legalaz

Aldaketarik ez... gauza jakina da, Konstituzioaren eta bere menpeko legeen baldintzak aldatzea lortzen ez den bitartean ezinezkoa dela hizkuntza minorizatuen normalizazioa lortzea. Hizkuntzen artean bat dominantea eta besteak subordinatuak diren bitartean ez baitago normalizazioa lortzeko ezinbestekoa den berdintasunaren onarpenik.

Izan ere, hor daukagu bere horretan diskriminatzaileak diren Espainiako eta Frantziako Konstituzioak eta etengabeko inpugnazio, errekurtsio eta erasoak, epaitegietako zigorrak eta abar luze bat... zertaz ari gara? Joko-zelaiaz edo bonba-minaz betetako zelaiaz? Joko-zelaia baino gehiago ez al da jokorik egin ezin den kartzelako patio bat?

Halere, jakina da hizkuntzak ez direla legez edo dekretuz normalizatzen. Hizkuntz Komunitatea da normalizazioa lortu behar duena eta horretarako legeen egokitzapena ere lortu behar duena.¹²

• **Eusko Jaurlaritzaren euforiaz**

Esan dugu gutxi bezala ezagutzen duela Iñakik Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoa. Eta hala, esku artean zeuden datu guztiak aztertu eta datuen bilakaera erkatu ondoren, Iñaki honako ondorio hauek iritsi zen:

A) EUSKARAREN DATUEN BILAKAERA EUSKAL HERRIAN

Urtea, Egilea	Euskaldunak (Ongi hitz egiten dute euskaraz)	Elebidun hartzaileak (Euskaraz "zertxobait" hitz egiten dakite, entzun eta irakurritakoa ongi ulertu)	Erdaldunak (Gaztelera edo frantsesa bestarik ez dakite)
1970, Pedro de Irizar	% 22,7		
1978, Siadeco (Euskaltzaindia)	% 23,4		
1991, Euskararen Jarraipena I	% 22	% 8	% 70
1996, Euskararen Jarraipena II	% 22,5	% 14,5	% 63

Euskal Herria osoari dagokionez garbi dago azken 25-30 urteotan ez dagoela hobekuntza nabarmenik. Gertatzen dena zera da: kopuruari dagokionez, alde batetik irabazten duguna bestetik galdu egiten dugula eta, oro har, aurreratu bezainbat atzeratzen ari garela azken 25-30 urteotan.¹³

B) EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN ERE HOBEKUNTZARIK EZ

Urteak	Egilea	Euskaldunen %a
1983	Jaurlaritzaren Gabinete de prospección Sociológica	26,9
1991	HPSren inkesta	24,1
1996	HPSren inkesta	25,3

Datu hauek... hazkunderik ez dagoela demostratzen dute eta orokorrean ez ezik, Autonomi Erkidegoan ere ez dagoela hobekuntzarik estankamendua baizik.¹⁴

• **Euskarak behar duen diskurtso berriaz**

Zoritxarrez diskurtso zaharrean finkaturik jarraitzen dugu dio Iñakik. *Ikus, bestela, ondoko hauek:*

- *Duela 20 urteko diagnostiko berbera eginez jarraitzen dugu.*
- *Helburuak ere berberak dira: gizarte geroz eta elebidunagoa eta integratua-
goa.*
- *Plangintza estentsiboak, ahal den jende eta esparru gehienetara iristeko,
eta ez intentsiboak Hizkuntz Komunitatea barrutik egituratzeko.*

Hau da gure gaur egungo egoera... Eta Euskarak diskurtso berri baten behar gorria du. Izan ere,... hizkuntz-kontzientziak. Duela 30 urtetik hona nabarmen behera egin baitu....(Frankoren azken urteetan) hizkuntza euskal nortasunaren ezaugarri modura hartzen zen, herritar guztiek euskara ikasi behar

Garai hartan zenbaitek esaten zuten euskaraz heztea kaltegarri izan zitekeela eta ez genuela geure seme-alaben etorkizuna arriskuan jartzeko eskubiderik. Ez naiz gogoratzen ñabarduraz; bai ordea, guraso guztiak konbentzitu gintuela euskarazko haurtzaindegia hobestera eta gure seme-alabek hezkuntza osoa euskaraz egin zezaten aldeko jarrera hartzera.

***Euskal Herri mailako
lehendabiziko
"Euskararen
Soziolinguistika
Azterketa" SIADECOK
egin zuen eta ikerketa
horren laburpena da
1979an argitaratutako
"Hizkuntz Borroka
Euskal Herrian" liburua.***

zutela...Gaur egun...euskal herritarra izateko euskara jakin beharri ez zaio lehentasunik ematen; beste aldetik, garai batean euskararen aurkako jarrerak plazaratzen ausartzen ez zirenak, orain lotsa gutxirekin azaltzen dira ez dagoela euskara zertan ikasirik eta euskara ikastea baino hobe dela ingelesa ikastea eta antzekoak esanez... euskara ez ikasi arren, hemen ez dela ezer pasatzen eta lasai aski bizi daitekeela erdara hutsean funtzionatuz pentsatzen dutenak nabarmenki gehitu dira.

Euskal Herrian, zorionez, badugu Euskarak behar zuen diskurtso berri hori. Duela 30 urte hasi, eta orain arte, eta aurrerantzean ere ekoizpen berriak sortzen ari den ikertzailea baitugu gure artean. J. M. Sánchez Carrión Txepetxez ari naitzela esan beharrik ez dago.¹⁵

5. EUSKAL HERRIAK IÑAKIREN ILDOA BEHAR DU

Iñaki Larrañagak 1960ko hamarkadan egiten zuen errealitatearen irakurketa berretsia aurkitu zuen, nagusiki, Ll. V. Aracillen teorian eta irtenbidea Txepetxek proposatu duen teoriaren ildotik garatu du. Nire ustez, txanpon beraren aurria eta ifrentzua dira. Aracillek, besteren artean, hizkuntza ordezkatzeko prozesuaren teoria jorratu zuen eta Txepetxek Euskara berreskuratzeko teoria planteatu du.

Iñakik teoria eta praktika uztartu ditu: euskalgintzako proiektu zehatzetan jardunez, soziolinguistika aplikatuaren arloan lan eskerga burutuz eta mendetasunezko eredu soziolinguistikoa gainditzeko alternatiba aldarrikatuz. Sarritan, ia bakartasunetik, politika ofizialaren aurka etengabeko borroka ideologikoan jarraitu du herri nortasunaren kontzientzia indartzen eta ahuldutako herri gogoia sendotzen.

Nire irakurketa kritikoa, bai, baina baikorra izango da. Hondamendira eramanez gaitzakeen euforia itsutik katastrofismo ezkorretik bezain urrun kokaturik, alegia.¹⁶

Iñaki Larrañaga da Euskal Herri euskalduna berrosatzea eta bere garapen iraunkorra bermatzea nahi duen pentsamenduaren eta praktika soziolinguistikokoaren erakuslerik handienetakoa. Beti ere, manera onaz, hizkuntz ekologiaren ikuspegiak —munduko hizkuntza komunitateak berdinak dira duintasunean, eskubidedun subjektuak dira, eta tratamendu bera behar dute— eta jarrera prepolitikoaz —Euskararen Herria lehenagokoa da menderatzen duten Estatuak eta politikak baino—. Horregatik, agian, menpeko hizkuntza politika ofizialen arduradunek ez dute balioetsi eta aintzakotzat hartu merezi bezala haren ekarpena; aitzitik, diluitzen, ahultzen eta disolbatzen ahalegindu dira.

Denborak, ordea, arrazoia eman dio Iñakiren ikuspegiari. Franco hil zenetik, hogeita hamar urte igarota, eta hogeitazko hizkuntz politikaren bueltan, EAEn, hau da, Nafarroarekin eta Iparraldearekin erkatuz euskararen aldeko politikarik onena burutu den eremuan, Ibarretxe Jaurlaritzak argitaratutako liburuxkan "Hizkuntza Politika aurrera begira" Hiz-

kuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2005-2009 egitasmoan, honako hauek irakur daitezke: “1982 inguruko urteetan ez bezala, erdal elebakartasunaren diskurtsoa ari da orain gure artean zabaltzen” (26 orrialdean); “marka politikoen gainetik eraiki beharreko diskurtso ideologiko bat eskatzen du, ez nazionala, ez autonomikoa ere, baizik eta hizkuntz ekologia moderno baten oinarrietan tinkotua” (28 orrialdean); “gizarteari arazoak ere baditugula esan behar zaiolakoan gaude, urria eta guztiz irregularra baita oraindik ere euskararen erabilera...ezin da euskararen geroa bermatutzat eman” (38 orrialdean); “euskaldunak bakarrik hartuz gero, euskararen erabilerak behera egin du EAEn ere bai” (64 orrialdea); “hizkuntza gutxitu batek atzera egiteko arriskua berezkoa du” (37 orrialdean).

Teoriak eta praktikak erakusten dute, beraz, menpeko hizkuntz politikekin euskaraz biziko den Euskal Herri euskalduna berrosatu nahi izatea idealista dela. Globalizazioaren aroan eta euskararen egungo egoera minorizatuaren baldintzatan, gure hizkuntzaren normalkuntza osoa lortzeko, besteren artean, Estatu politika eta Estatu hizkuntz ofizialen estatusa behar dira. Espainiako eta Frantziako Estatuaren ideologia hedatzaileek eta Euskal Herriko laguntzaileek, ordea, erreparazio historikoa baztertuz eta Europako Estatu hizkuntzen berdintasunezko ofizialtasuna ukatuz, Euskal Herri euskalduna berregitea eragozten dute. Kasurik onenean ere, egungo euskararen hizkuntz politiken adostasuna ez da normalizatzailea, asimilatzailea baizik; eta euskarazko hizkuntz komunitatea berrosatzeko eta bere garapen iraunkorra bermatzeko betoa ezkututzen du. Horrek arriskuan jartzen ditu euskararen osasun betea bere lurralde historikoan eta hizkuntz aniztasunaren osotasuna munduan.

6. ARO BERRIAN HIZKUNTZ POLITIKA BERRIA

Iñakiren pentsamenduak eta praktikak ikaragarriko interesa sortzen dute, gaur, haren ikuspegiak eta kontzeptuen formulazioek ideien eztabaidan dituzten transzendentzia eta inplikazioengatik, sakoneko aldaketa politiko eta sozialen atarian, eta krisialdi ekonomikoa larriaren baitan gauden unean. Batetik, Euskal Herrira begira, egungo hizkuntz politiken helburua eta praktika berraztertzea eskatzen baitu, mendekotasunetik irten ahal izateko; okerra, helburuen formulazioan, helburu horiek lortzeko bideetan eta aldarrikatzen diren mezuetan dago. Bestetik, Estatuari begira, nazio Estatuaren komunitate politikoa, kulturazkoa eta hizkuntzazkoa berdintzen jarraitzeko asmoa salatzen baitute; bereziki, Espainiako eta Frantziako Estatuak euren helburu politikoak lortzeko, mendean hartuta dituzten nazio, kultur eta hizkuntz komunitate naturalen aniztasuna itotzen ari direnean; eta horien artean, Euskararen Herriarena.■

Aldaketarik ez... gauza jakina da, Konstituzioaren eta bere menpeko legeen baldintzak aldatzea lortzen ez den bitartean ezinezkoa dela hizkuntza minorizatuen normalizazioa lortzea. Hizkuntzen artean bat dominantea eta besteak subordinatuak diren bitartean ez baitago normalizazioa lortzeko ezinbestekoa den berdintasunaren onarpenik.

*Teoriak eta praktikak
erakusten dute, beraz,
menpeko hizkuntz
politikekin euskaraz
biziko den Euskal Herri
euskalduna berrosatu
nahi izatea idealista dela.
Globalizazioaren aroan
eta euskararen egungo
egoera minorizatuaren
baldintzatan, gure
hizkuntzaren
normalkuntza osoa
lortzeko, besteren artean,
Estatu politika eta Estatu
hizkuntz ofizialen
estatusa behar dira.*

BIBLIOGRAFIA

- EUSKALTZAINDIA, 1979. *Euskararen Liburu Zuria*. Ediciones Vascas argitaletxea. Informea: SIADECO taldeak. Laburpena: Martín Ugaldek. Itzulpena: Elhuyar taldeak.
- ARACIL, Lluís V.; LARRAÑAGA, Iñaki, 1984. "Euskara Gizarte Bizitzan" ("Tolosan Euskaraz" Ihardunaldiak). TOLOSAKO UDALA. Euskara Batzordea. Itzulpena: Tolosako Euskara Zerbitzuak.
- LARRAÑAGA, Iñaki, 1999. *Euskararen egoerari buruzko ikerketak: euforia giroa ala konfusio-zeremonia?* Zenbat Gara aldizkaria, 3.
- LARRAÑAGA, Iñaki, 2000. *Non dago euskaldungoaren gorakada?* Bat soziolinguistika aldizkaria, 35.

OHARRAK

1. Bat aldizkaria, 119 orrialdea.
2. Bat aldizkaria, 118 – 119 orrialdeak.
3. Iñaki Larrañaga – Wikipedia, entziklopedia askea. Hizkuntza borroka Euskal Herrian.
4. Euskara Gizarte Bizitzan 46 orrialdea.
5. Euskara Gizarte Bizitzan 7 – 8 orrialdeak.
6. Euskara Gizarte Bizitzan 25 – 26 orrialdeak.
7. Euskara Gizarte Bizitzan 36 – 37 orrialdeak.
8. Euskara Gizarte Bizitzan 20 orrialdea.
9. Zenbat Gara 3, 20 orrialdea.
10. Zenbat Gara 3, 20 – 21 orrialdeak.
11. Zenbat Gara 3, 21 – 23 orrialdeak.
12. Zenbat Gara 3, 22 – 23 orrialdeak.
13. Zenbat Gara 3, 26 orrialdea.
14. Zenbat Gara, 26 – 27 orrialdeak.
15. Zenbat Gara 3, 30 – 31 orrialdeak.
16. Zenbat Gara 3, 19 orrialdea.